


Su haietatik, ke hauek
Gipuzkoa: Errausketatik zero zaborrerantz



Iñaki Petxarroman

SU HAIETATIK,
KE HAUEK

GIPUZKOA: ERRAUSKETATIK
ZERO ZABORRERANTZ



LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2012ko azaroa

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Iñaki Petxarromanek OBRARENA

TXALAPARTA ARGITALETXEA E.M.L.
San Isidro 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

ISBN
978-84-15313-43-4

LEGE GORDAILUA
NA. 2029-2012

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Amagoia Arrastio

INPRIMAKETA
Gráficas Lizarra S.L.
Tafallako bidea, 1 km.
31132 Villatuerta - NAFARROA



GIPUZKOAN ATEZ ATEKO HONDAKINEN bilketaz eztabaidatzen da gaur gehiago, baina ez zen inoiz halako eztabaidarik sortuko administrazio publikoek eta korporazio pribatuek errauste planta bat eraiki nahi izan ez balute. Konbentzitua nago paradoxa handi bat dagoela eztabaida honen guztiaren atzean: hondakinak erraustu nahi izateak eraman du Gipuzkoa zero zabor helburura, konpost gehiago egitera, hondakin gehiago birziklatzera, zabor gutxiago sortu nahi izatera... Administrazio publikoek eta korporazio pribatuek errauste plantarik egin nahi izan ez balute, Gipuzkoak hondakinak zabortegira botatzen jarraituko luke, duela hamabost urte egiten zuen bezal-bezalaxe.

Hamalau urte badira ama eta biok hondakinak bereizten hasi ginela. Orduan inor ez zen gugana eskerrak ematera etortzen, ez zaborren tasagatik gutxiago kobratuko zigtutela esatera ere, ez hondakinak birziklatzeko ikastaro bat edo erraztasunak jarriko zizkigtutela esatera ere. Garai hartan, herriarri honen hondakinak ia % 80k San Markon bukatzen zuten, Beraungo (Errearteria) bizilagunen kalterako.

Gipuzkoak errauste planta bat behar zuela erabaki zuenak ez zekien ondo zer ekarriko zuen atzetik: instalazioa hartu behar zuten udal guztiek, banan-banan, proiektua errefusatzea; Donostia aldeko PSE-EEK berak ere aurkako jarrera hartzea hasierako urteetan; *gai sozial* batengatik Gipuzkoan aspaldi egin ez ziren moduko manifestazioak egitea; medikuek eta erizainek aurkako mugimendu bat antolatzea; errausketaren aurkako plataformak eta koordinakunde bat sortzea; mugimendu horrek lege egitasmo bat prestatu eta 35.000 sinadura baino gehiago biltzea Eusko Legebiltzarrerara eramateko; Europako Inbertsio Bankuarekin klausula ezinezkoak sinatzea proiektuaren finantzaketa ziurtatzeko; eta beharbada aurreko gertaera horietatik guztietatik asmatzen zailena zena: hondakinak kudeatzeko beste eredu baten abiapuntu izatea.

Seguru asko, errauste plantak eraiki behar zirela erabaki zuenak ez zuen pentsatuko hondakinak gutxitu, berrerabili, konpostatu eta birziklatzeko mugimendu bat sortuko zela Gipuzkoan, zero zabor mugimendua. Alegia, errauste plantari jatekoa lehiatuko zion mugimendu bat sortuko zela. Hori izan baita, hain justu, hondakinak erraustearen aurka Gipuzkoan sortutako mugimenduak egin duen bidea: errausketa kritikatzetik, hondakinak «era burutsuan» kudea daitezkeela praktikan erakustera.

Ibilbide horren gaineko begirada pribilegiatua izan du eta du Iñaki Petxarromanek, *Berriako* kazetari gisa hasiera-hasieratik jarraitu baititu Gipuzkoan errauste planta bat egiteko proiektuaren gaineko gorabehera guztiak, lehen eskutik jasotako informazioarekin sarri. Begirada pribilegiatu hori irakurleekin partekatzea aukeratu du orain, eta zinez esker-tuko dute Gipuzkoan zer gertatzen ari den ulertu nahi duten guztiek.

Lan eskerga egin du Petxarromanek, hamar urteko historia luzean hemeroteketan hautsa biltzen gelditutako albisteak ekarri, eta hain ezagunak ez diren, inork gutxik ezagutzen

dituen eta ahanzturaren zokoan gelditutako beste hainbat pasarte gogoraziz. Argia egingo du errausketa egitasmoen atzean dauden interesen eta alderdi, komunikabide, administrazio eta korporazio askoren jokabideen gainean.

Seguru asko, errauste plantak eraiki behar zirela erabaki zuenak ez zuen pentsatuko hamar urte joan eta oraindik errauste plantarik egongo ez zenik eta, horren ordez, hondakinak atez ate biltzeaz eztabaidatzen arituko zenik gaur Gipuzkoan. Aldaketa hori ulertu nahi duenarentzat, ezinbesteko izango da Petxarromanen lan hau. Administrazio publikoen eta korporazio pribatuen gobernantza ereduaz eta *lobbykraziaz* ere zer pentsatua emango dio. Eta *lobbyen* demokrazia horri aurre egiteko moduez eta ekimenez gogoeta egiteko adar batzuk ere eskainiko dizkio. Hamarkada batez Gipuzkoako ingurumen, ekonomia, garapen eredu eta osasun gatazka handienetakoa izan denak merezi zuen liburua da hau.

Baina eztabaida eta gatazka ez dira itzali. Atez atekoaren aurkako mugimendu bat ere antolatu dute errausketaren alde egin duten alderdi politikoek; sestra handia dago, komunikabideetako titularretan bederen; mankomunitate baten agintetik kendu dituzte errausketaren aurkako indar politikoak, eta inork ezin du segurtatu (tronpatzeko arriskurik gabe) hamar urte barru ez dutela errauste planta bat eraikiko. Batek daki hamar urte barru zer izango den! Baina gauza bat segurua da: honezkero, sestra politikoak eta boto arrantzak alde batera utzita, Gipuzkoa ez da gehiago izango lehen zena: zaborteziak alai asko eta axola handirik gabe betetzen zituen lurralde hura.

Duela hamabost urte, ama eta biok etxean hondakinak bereizten hasi ginenean, gutxiengo ginen birziklatzearen alde egiten genuenak. *Bitxo raro* batzuk. Eta zer esan etxean konposta egiten zutenengatik? Guri inork ez zigun eskerrik eman garai hartan, eta uste dut legezkoa dela gaur eskerrak ematea hondakinak erraustearen aurka egin duten guztiei; patrika-arentzat merkeagoa da, ingurumenarentzat osasungarriagoa,

osasurentzat seguruagoa eta baliabideei eusteko modu bakkarra, errausten dena betiko galtzen baita. Eta errauste plantak eraiki nahi izan zituzten administrazio publikoei eta korporazio pribatuei ere eskerrak eman behar zaizkiela uste dut, haiek gabe Gipuzkoak ez zukeelako zero zabor lurralde izateko bidea hasiko. Ederki aldatu dira kontuak hamar urtean!

MIKEL PERUARENA

HARRIDURA TONUAN BOTA ZUEN ideia hau Maria Eugenia Arri-zabalaga jeltzaleak: «Nork esan behar zigun, herri honetan gertatu diren guztiak gertatuta, azkenean hondakinak izango zirela herrialde honetako eztabaidagai nagusia?». Martin Ugalde Kultur Parkean 2012ko maiatzean hondakinen kudeaketari buruz egindako mahainguruan bota zuen esaldia Arrizabalagak, Juan Karlos Alduntzin orduko Gipuzkoako Ingurumen diputatua eta Denis Itxaso PSE-EEko Ingurumen Gaietako arduraduna ondoan zituela.

Ez zaio arrazoirik falta. Baina, batzuetan, eta ez alderdi jeltzalean preseski, nabari da gaiari garrantzia kentzeko eta orria lehenbailehen pasatzeko gogo moduko bat. Alegia, denbora galtzen ari garela zaborren *kontu* honekin.

Gipuzkoako ezker abertzalean ere badira deseroso daudenak. Batetik, Bilduk errauste plantaren aurka eta hondakinak atez ate biltzearen alde egindako apustu tinkoak hauteskundeetan kalte egiten diola uste dute batzuek. Eta, bestetik, ETA-ren *Erabakiaren* ondorengo prozesu politikoan egin behar den lana oztopatzen duela pentsatzen dute beste batzuek.

Ezker abertzaleko kideen arteko eztabaida bat baino gehiagoren lekuko izan da kazetari hau. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bilduk Gipuzkoan ateratako emaitzak baloratzera gai honi batzuek eman dioten pisua eta garrantzia ere testuinguru horretan koka daiteke.

Gaiari garrantzia kentzen diotenen zenbait ñabardura kontuan hartu beharko lituzkete, baina. Batetik, ez da horren gai sektoriala. Hondakinen kudeaketaren oinarrian gizarte eredu oso bat dago. Errauste plantaren aldeko apustuaren azpian kontsumo eredu zehatz bat ezkututzen da, hots, indarrean dagoen eredu, *status quo*: ahalik eta gehien, eta ahalik eta denbora gutxienean, kontsumitzera bultzatzen gaituen eredu ekonomiko asegaitza. *Erabili eta bota* leloa ardatz hartuta, ekonomiaren motor bilakatu den kontsumo eredu hazkundezalea. Kontsumogaien erabilera-epea gero eta laburragoa egiten duen ekoizpen eredu, alegia, kapitala etengabe metatzeko logika ekonomiko kapitalistari estu jarraitzen dion sistema.

Ez da horren azaleko kontua. Gai politikoa da, eta lehen mailako garrantzia dauka, gainera. Atez ateko bilketaren alde ari direnek badakite, bere txikian, herritar kontziente arduratsuak lan handia egin dezakeela eredu bidezkoago eta iraunkorrago baten alde: gutxiago kontsumituz; produktuak berrerabiliz; naturaren zikloan berriz sar daitezen, hondakinak gaika sailkatuz; Ama Lurrarekin harmonian bizitzeko oinarriak berreskuratuz.

Bakarren batek kutsu *hippy* edo inozo samarra har diezaioke esandakoari. Baina erro iraultzailea du, sakon-sakon. Eta, segur aski, Gipuzkoan dagoen lehia politikoa ulertzeko beharrezkoa da hori kontuan hartzea. Irudiei eta ikurrei horrenbeste garrantzi ematen zaien ikus-entzunezkoen aro digital honetan, eta modu metaforikoan azalduta, konpostaren eta errautsaren arteko ezberdintasunez jabetzeko gai ez direnek benetan urruti daukate lurraren erritmoa, eta denbora eta pedagogia handia beharko dituzte horretara

berriz hurbiltzeko eta egokitzeko. Tira, bada, berandu baino lehen has gaitezen haiek ere arrastoan sartzen.

Errauste plantaren aldeko apustu politikoak hamar urte bete ditu aurten. Gorabehera handiak izan ditu ibilbidean azpiegitura polemiko horrek. Eta iritsi garen lekura iritsi bagara, honexegatik da: errauste planta inork ez duelako nahi bere etxe ondoan. Denis Itxaso buruzagi sozialistak honela aitortu zuen *El Diario Vasco* egunkarian, 2012ko maiatzaren 26an argitaratutako elkarrizketa batean: «Inork ez du nahi errauste planta edo zabortegei bat».

Alegia, *Not In My Back Yard* (NIMBY, ez nire etxeko patioan) efektu berekoi burgesetik, erro iraultzaileko mugimendu batera nola egin daitekeen jauzi erakutsi du hamar urteko istorio labur honek. Nola gizarte mugimenduetatik eragin daitekeen erakundeak kudeatzen dituzten eragile politikoengan. Nola gailen daitezkeen herri mugimenduaren eskaria eta borondatea botere faktikoei (triangelu politiko-ekonomiko-komunikatiboak) sustatzen duen proiektu baten aurrean.

Eta, hain zuzen ere, hori da gaiari deseroso begiratzen dioten askok ulertu beharko luketen kontua; hots, Gipuzkoako Zubietako errauste plantaren proiektua gelditu egin duela. Martxan zegoen egitasmo bat bertan behera utzi du eta horrek, derrigorrez, era guztietako ondorioak dakartza. Baina, lehenengoa eta inportanteena, hauxe: irtenbidea bilatu behar dela eta alternatibak jarri behar direla martxan, hondakinak ez direlako desagertuko. Horregatik sartu da Gipuzkoa saltsa honetan, inork etxe atarian nahi ez duen errauste plantari izkin egin behar zaiolako, norbaitek ez dezan inork nahi ez duen hondakinen kudeaketa arduragabe baten ondorio toxikoak pairatu. Horretarako bide bakarra dago: hondakinak murriztea, berrerabiltzea, gaika biltzea eta birziklatzea. Eta, gaur-gaurkoz, atez ateko bilketa da, alde handiz, gehien birziklatzea bermatzen duen sistema. Alegia, eta, batzuei gusztatzen ez bazaie ere, elkarri lotutako binomioa da errauste planta eta atez ateko bilketa. Bata edo bestea. Errauste planta-

rik edo zabortegi toxikorik ez bada nahi, birziklatu egin behar da. Ez dago beste biderik.

Protagonista asko daude; horietako batzuek jaka aldatu dute, beste batzuek ez, eta ez dira gutxi biluzi direnak ere. Denek urte hauetan jokatu duten paperaz jabetzea garrantzitsua da, noraino iritsi garen ulertzeko. Horixe da liburu honen helburua. Hemeroteka eta milaka paper eta iturri astinduta, batzuentzat sinestezin, deseroso eta bitxia den oraina hobeto ulertzeko gako batzuk ematea. Argi pixka bat emateko batzuk harri eta zur utzi dituen kontu honi: Gipuzkoa abertzalea nola iritsi den hondakinen kontu honekin horren modu temosoan *endredatzera*.

Garrantzitsua da ulertzea. Zeren, zinez, norbere etxean hondakin gutxiago sortuz, sortzen dituenak berak gaika bereiziz eta birziklatuz, hartu beharreko konpromiso *iraultzaile* txiki hori indarrean jartzeko adorerik ez badago, hobe baita ahaztea asmo handiagoko iraultza sozialista eta independentistekin. Herritar arduratsuz eta kontzientez osatutako gizarteak helburu handiak lor ditzake, mundua aldatzeak lehenengo eta behin nork bere mundua aldatzea esan nahi duela ulertzen baldin badu bakarrik.

Hernani, 2012ko udazkenean

1.1. Errauste plantak mahai gainean...

2002KO UDABERRIKO ARRATSALDE LASAI BAT ZEN. *Euskaldunon Egunkariako* erredakzio estreinatu berrian hurrengo eguneko egunkariaren argitalpenaren gainean lanean ari ziren kazetariak, eguneroko martxan. Esandako orduan heldu zen San Marko Mankomunitateko kontaktua. Telefonoz aipatutako txosten mardula zekarren eskuetan zinegotziak. Garrantzitsua zen txostena. Eta horregatik nahi zuen herritarrek jakitea erakunde publikoak zertan zebiltzan. Jakina, *Egunkariari* txostena eman zion zinegotziaren eta haren talde politikoa-
ren iritziaren aurkakoa zen testuaren mamia. Hori salatze-
ko eta gizartean ardura sortzeko eskaini zion txostena kazetaria-
ri, jakinda ordura arte argitaratu gabea zela.

Euskaldunon Egunkariarekin gogoratu izana eskertu eta berehala jarri zen lanean kazetaria txostenaren edukiaren gainean. Luzea zen txostena, baina ez zitzaion zaila egin titularra aurkitzea: «Errausteko bi planta egingo dituzte Gipuzkoan hiri hondakinak kudeatzeko». Orri osoko informazioaren izenbu-

ruaren azpian hainbat zehaztapen zekartzan testuak. Errauste plantetako bat Donostia eta Tolosa artean egingo zutela, eta bestea Txingudiko txokoren batean. 2016rako 541.996 tona zabor kudeatuko zirela Gipuzkoan, eta horietatik % 41 bakarrik birziklatuko zirela, gainerako guztia erraustu egingo zela horretarako propio egindako azpiegitura berrietan. Orri osoko artikulua eskaintzeaz gain, maiatzaren 7 hartako egunkariaren azaleko bigarren albiste nagusia ere gai horri eman zitzaion.

Gipuzkoako errauste plantaren proiektuaren berri *Euskaldunon Egunkariak* eman zien beste inork baino lehenago irakurleei. Baina, ohi zen bezala, eskusibak ia ez zuen oihartzunik eduki beste komunikabideetan. Inor gutxik egin zion jaramon euskarazko kazetaren albisteari, nahiz eta hurrengo hamar urteotako historia guztiz baldintzatuko zuen. Oharkabean pasatu zen.

Bi hilabete geroago bai, orduan Gipuzkoako Diputazioak berak aurkeztu zuen *Egunkariako* kazetariak maiatzean aurreratutako txostenaren edukia. 2002-2016 Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusia, askotan bezala, erdarazko siglengatik ezaguna egin dena gerora: PIGRUC (Plan Integral General de Residuos Urbanos de Gipuzkoa). 2002ko uztailaren 31ko goiz bero hartan herrialdeko prentsaren albiste nagusia zen hura, *Egunkarian* ez ezik baita *El Diario Vascon* ere. Foru Aldundiak hasierako onarpena eman zion hondakinen plan nagusiari, eta herrialdean bi edo hiru errauste planta egiteko proiektuari.

Jon Mikel Murua Nekazaritza eta Ingurumen diputatuak (EAJ) eman zituen argibideak hedabideen aurrean. Diputatuak azpimarratu zuen erakundeek jaramon egin behar diotela Europako hondakinen zuzentarauari, eta zabortegeiak gainezka egitear zeudela ohartarazi. «Bidenabar, hondakinei ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatu behar dugu, birziklatzearen, konpostatzearen eta energia balioztatzearen bidez». Osasunarentzat errauste plantak ez zuela inolako arriskurik. Hori beste garai batzuetako kontua zela, teknologiarik puntakoe-

na izango zutela Gipuzkoako errauste plantek. Horretan ez edukitzeko zalantzarik herritarrek. Geroztik, hamar urteotan, hamaika aldiz entzundako argudio eta hitz berak. 354 orriko txostena eta ondorio bat: orain arte hondakinak kudeatzeko erabili den azpiegitura nagusia, zabortegea, Europak debekatu egin duenez, errauste planta da geratzen den irtenbide bakarra. Bizkaian egin zutenaren antzera, Gipuzkoak ere behar zuen berea. Bereak.

Aipagarria da, gainera, Gipuzkoan egindako hondakinen plana Bizkaikoaren kopia hutsa dela, egile berak atondu zituela biak, eta hondakinen estatistikak egiteko metodologia bera erabili zuela batean zein bestean, helburu bera lortzeko, azken finean, errauste planta ezinbestekoa dela sinetsarazteko.

1.2. Garmendia versus Ansorena

Ez zen lehen aldia Gipuzkoan errauste plantaren inguruko proposamena eta eztabaida mahai gainean jartzen zena. Urte batzuk lehenago, Bizkaian Zabalgardi errauste planta eraikitzea planteatu zen eztabaidarekin bateratsu-edo, Roman Sodupe EAJko ahaldun nagusi jeltzalearen agintaldian, egon zen antzeko planteamendurik foru erakundeetan. *Zergardi* izena eman zioten proiektuari, Zabalgardi bizkaitarraren ahaide zela nabarmentzeko. Alabaina, errauste plantaren irtenbidea ekonomikoki garestiegia zela erabaki zen orduan eta herrialdean martxan ziren zabortegeekin urte batzuetarako irtenbidea bermatuta zeukatela hondakinek. Gauzak horrela, Zabalgardi ahizpa bikirik gabe geratu zen. Gainera, 1982tik martxan zen Arrasateko Akeiko errauste planta 1997an ixteko agindu zuen Diputazioak, dioxina eta gas kutsagarrien isurle ikaragarria zelako. Ez zirudien Gipuzkoa lurralderik egokiena errauste plantetarako. Itxuraz, behintzat.

Ordurako, baina, porlanaren, energiaren eta eraikuntzaren *lobby*ek, alegia Hego Euskal Herriko eta Espainiako enpresa indartsuenek, begiak jarrita zituzten jomuga berrietan. Eta erabakia zuten errauste plantak negozio biribila izango

zirela hondakinak kudeatzeko. *Lobby* horiek antolatzeke hamaika era dituzte, politikoei opariak eta mesedeak eginez, xantaiak egiten ez dituztenean, eta hamaika taldetan erutzen dira, nahiz gehienak ezezagunak izan. *Lobby* huts-hutsa ez izan arren, enpresa horientzako *think tank* gisa lan egiten duten hamaika institutu eta fundazio ere badira eta, hondakinen arazoari dagokionez, Hondakinen Espainiako Kluba (CER) taldean antolatu dituzte beren interesak enpresa horiek guztiek. 2000ko hamarkadan Baliabideen Iraunkortasunerako Institutua (ISR) sortu zen, CER horren garapenetik. Egitura horretan parte hartzen dute, zeinek bere erara, Cementos Lemonak (FCC), Endesak, Guascorek, Senerrek... eta baita erakunde publikoek ere, Nafarroako Gobernuak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, besteak beste.

ISRko kide eta sortzaileetako bat izan zen Xabier Garmendia, Bizkaiko eta Gipuzkoako hondakinen plan nagusien egile eta sinatzailea. 2009tik 2012rako legegintzaldian Eusko Jaurlaritzako jarduneko Industria sailburuordea izan da Garmendia, eta, Arabako *fracking* edo haustura hidrauliko bidezko gas ustiaketa planaren bultzatzaile nagusietakoa, besteak beste. Gizon horrek eman zien berebiziko bultzada Gipuzkoako eta Bizkaiko errauste planten egitasmoei.

ISRko kide izateaz gain, kargu garrantzitsuak ere izan zituen Garmendiak Eusko Jaurlaritzan 1990eko hamarkadan: Ingurumen sailburua izan zen Jose Antonio Ardanzaren gobernuan. Enpresa zenbait ere sortu izan du, «ingurumen aholkularitzaren» alorrean aditua izanik. Neuciclaje enpresaren sortzaile izan zen, erabiltzeari utzitako pneumatikoak «berreskuratzeko» zerbitzuak ematen dituen. Enpresa horrek hauxe egiten du funtsean: pneumatiko zaharrak jaso, txikitu eta zementu enpresetako labeetara eraman, han erre ditzaten. Enpresa horren bi akziodun nagusiak Cementos Leona-FCC eta Cementos Rezola dira.

Zeinek erabaki zuen Bizkaiak eta Gipuzkoak errauste plantak behar zituztela? Norbaitek erabakiko zuen plan zehatz

baten arabera argudiatu eta idatzi beharko zutela errauste plantak egiteko beharra zegoela? Enpresa *lobby*ek eta erakundeek zer-nolako gertutasuna duten jakinda, susmatu ere egin daiteke harremanen bat izango zutela horrelako saltsetan eskuz esku aritzeko. Garmendia bera oso adibide egokia baita ikusteko enpresetako zuzendaritzan eta erakundeetako aginte postuetan aritzen direnak, askotan, pertsona berak edo oso gertukoak izaten direla. Ez da bakarra, ez entzutetsuena ere. Hor ditugu beste dozenaka adibide: Josu Jon Imaz, Nuria Lopez de Gereñu, Jose Antonio Ardanza, Nicolas Redondo Terreros...

Oso ausarta ote da pentsatzea norbaitek adierazi ziola Gipuzkoako Foru Aldundiari errauste planta bat oso interesgarria izango zela herrialdearen *garapen ekonomikoarentzat*, eta, beraz, lan politikoa egin beharko zuela bidean ager zitezkeen oztopoak gainditzeko? Interesgarria da, horri dagokionez, Sener ingeniariak enpresako buru Jorge Sendagortak 2008ko ekainean elkarrizketa batean Zabalgarbi Bizkaiko errauste plantari buruz esandakoa: «Konponbidea geneukanez, plantaren eraikuntza sustatu genuen». Zer da «sustatu» hori? Obra publikoak enpresa pribatuak sustatzen dituztela? Eta sustatzeaz gain, gainera, kudeatzearen ondorioz negozioa ere egiten dutela? Bada, kasu honetan, sustatzeaz gain, Senerekin zortzi urte daramatza Zabalgarbi kudeatzen, fccrekin eskuz esku. Publikoaren eta pribatuaren bat etortze horri «lehentasunen sorrera» deitzen diote Hirigintza Erregimenen Analisisian. Horrek esan nahi du badirela hainbat sektore ekonomikori lotutako eragile eta inbertsio batzuk –kapitala eta gaiaren gaineko alde aurreko ezagutza teknologikoa dutenak–, eta haiek zehazten dituztela zenbait helburu lortzeko estrategiak. Erabakiguneetan, eremu publiko eta pribatuaren arteko elkarlan horrek «botere sistemiko» bat sortzen du, elkarren interesak zaindu eta bultzatzeko. Amets Ugerri hirigintzako adituaren artikulua hau aski argigarria da, gai horri dagokionez: «*La democracia de las corporaciones y la incineradora*» (*El Periódico Diagonal*). Gipuzkoaren kasuan,

2007-2011 agintaldian osatu zen Gipuzkoa Aurrera *lobbya* da funtzionamendu mota horren erakusle ezin aproposagoa, mahai berean elkartzen zituelako Diputazioa, Donostiako Udala, Kutxa, MCC, Merkataritza Ganbera eta Adegí. Erakunde publiko-pribatuaren zeregina herrialdearen «helburu estrategikoak» bultzatzea zen, eta, han nor esertzen zen ikusita, susma daiteke zein ziren helburu *estrategiko* horiek. Ibilbide laburra eduki zuen *lobby* horrek, 2011n desegin zuelako Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Errauste plantaren kasura etorrita, hari asko daude, baina erraz topa daiteke non elkartzen diren ia guztiak. Begiratu dezagun, bada, non. Adibidez, FCC dago Zabalgarrin –proiektua «sustatu» zuen Senerrekin batera–, eta FCC dago Zubietan, Serbitzu eta Altuna y Uria (EAFren ingurukoak azken bi horiek) enpresekin batera.

Xabier Garmendia da beste hari mutur bat. Hark idatzi zituen Bizkai-Gipuzkoetako hondakinen planak, eta lotura zuzena du FCCrekin. Izan ere, FCC bezala, ISRkoa da Garmendia, eta Sener eta FCCren Euskal Herriko zenbait enpresa-adar ere ISRkoak dira. Bidenabar, hariak lotzen jarraituz, ISRren gertukoa da Javier Ansorena ere –hainbat hitzaldi eta kongresutara gonbidatu du institutuak, errauste plantaren aldeko tesiak azal ditzan–, Gipuzkoako PIGRUGaren bigarren sinatzailea. Ansorenak ez du Garmendiaren pisu politiko bera, baina EAFren pieza garrantzitsua da puzzle hau osatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zerbitziburua izan da urte luzez, eta hura izan da hamarkada honetan PIGRUGaren teorizatzaile eta babesle sutsuenetakoa. Hari zor zaio, neurri batean, Gipuzkoako errauste planta aurrera eramateko antolatu den hezurdura politiko-administratiboaren pisuaren zati bat. «Gaur egun, erraustea hondakinekin egiten den balioztatze energetikoaren teknologia fidagarria da, indartsua, sendoa eta hedatzen ari dena; ingurumen eragin oso txikia du, eta klima aldaketari eta energia krisiaren ondorioei aurre egiteko balio du, baliabide berriztagarri eta iraunkor baten bidez»,

idatzi du errauste plantaren teknologia goratzeko egin dituen teorizazio ugarietako batean.

Ahal izan duen toki eta abagune guztietan baliatu du *borroka ideologikoa* errauste plantaren mesedetan. Jardunaldiak, bidaiak eta kongresuak egiteko baliabideak ez zaizkio falta izan. Hainbat artikulutan utzi ditu bere ideiak idatzita, besteak beste honako hauetan: «*Incineración de residuos urbanos. Efectos medioambientales y sobre la salud (I y II)*» (Hiri hondakinen errausketa. Ingurumenean eta osasunean dituen ondorioak) *Residuos* aldizkarian 2009an argitaratua, «*La incineración y la nueva directiva europea de residuos*» (Errausketa eta Europako hondakinen zuzentarau berria) (*El Diario Vasco*) eta «*Los residuos urbanos, una fuente de energía renovable y sostenible*» (Hiri hondakinak, energia iturri berriztagarri eta iraunkorra).

Adiskideekin gozoa bezain zorrotza izan da aurkariekin. Honako anekdota honek adierazten du nolako grinaz bizi izan duen errauste plantaren proiektua aurrera eramateko ardura. Carlos Ormazabalek, Markel Olanoren foru exekutiboko Garapen Iraunkorreko diputatu ohiak, *Berriako* kazetari bat hartu zuen elkarrizketa bat emateko, 2007ko urriaren 10ean, kargua hartu berrian hain justu ere. Elkarrizketa egin behar zen bulegoan –Diputazioaren jauregian, Donostiako Gipuzkoa Plazan– ez zegoen diputatua bakarrik, ohikoa izaten den bezala. Gertatu izan da agintari baten ondoan idazkaria edo, azken urteotan bereziki, komunikazio arduraduna egotea. Baina egun hartan Javier Ansorena zegoen Ormazabalekin orpoz orpo. Detaileaz ondo jabetuta hasi zuen elkarrizketa kazetariak, giroa hasiera-hasieratik ez ozpintzeko ezer esan gabe, ordea.

Elkarrizketaren une batean, baina, galdera baten harira, kazetariari zuzendu zitzaion Ansorena, eta hauxe aurpegiratu zion, modu zakar samarrean: «Hori gezurra da!». Isilune eta tentsio une garratz bat zabaldu zen diputatuaren bulegoan. Diputatuak eten behar izan zuen istilua: «Lasai, lasai!», esan zion Ansorenari. «Bai, baina ez da onargarria gezurrak botat-

tzea», erantzun zion Ingurumen teknikariak. Ansorenaren izaera islatzen du, neurri batean, anekdota horrek, eta errauste plantaren alde urte hauetan guztietan jarri duen gogoaren eta grinaren isla ezin adierazgarriagoa da.

Eraikuntzaren eta porlanaren *lobby* ez ezik, energiaren *lobby* boteretsuak ere baditu interes handiak errauste plantetan. Gipuzkoan, esate baterako, alderdi errausketazaleek behin eta berriro aipatu izan dute hondakinen energia balioztatzeko azpiegiturak direla errauste plantak. Alegia, Zubietako eraikinaren bidez, urtean 203.000 megawatt-ordu elektrizitate ekoiztea lortuko litzatekeela, herrialdeko 68.000 etxebizitzaren kontsumoa asetzeko adinakoa. Datu horiek, zehazki, FCC enpresak eman ditu.

Zein da sistema, ordea? Errauste planta kudeatzen duten enpresek Iberdrolari –edo elektrizitatea saltzeaz arduratzen den edozein enpresari– saltzen diote elektrizitate hori, eta Iberdrolak herritarrei. Beraz, negozio bikoitza da enpresentzat. Batetik, errauste planta kudeatzen dutenentzat (FCC, Serbitzu...); eta, bestetik, elektrizitatea saltzen duten enpresentzat –kasu honetan, Iberdrolarentzat–. Eta enpresentzat negozio bikoitza bada, gastu bikoitz bihurtzen da herritarrentzat. Izan ere, bere zaborra errausteagatik dagokion zerga ordainduko du; eta, gainera, errausketan sortutako elektrizitatearen kostua ere hartuko du bere gain. Non ote dago sistema horren onura herritarrentzat?

1.3. FCC eta RESA SA, izatezko bikotea baino gehiago

Enpresen *lobby* eta alderdi politikoen interesak estuki loturik daude negozio handia dakarten azpiegitura eta proiektuetan. Inori ez zaio arrotz egingo Bush familiak –aitak eta semeak, AEBetako lehendakari ohiak biak ere– petrolio alorreko enpresa boteretsuetan interes pertsonalak dituela –Halliburton enpresan, esaterako–, eta Ameriketako Estatu Batuetako Gobernu bera ere eraman izan dutela gerrara eta inbasio eta

diplomazia jokaldi makurretara multinazional horien interesak defendatzearen. Eta mundu mailako joera horrek balio du gure herri txiki honetan ere; kapitalismo globalizatuaren garaian, zer esanik ez.

Errauste plantaren atzean enpresa interes nabarmenak daude, baina, zein alderdik eta zein sutsu babestu izan dituzten ikusita, susma daiteke enpresa horiek nahiko lotura eta harreman estuak izan behar dituztela alderdi batzuekin. Gipuzkoaren kasuan, EAJRekin eta PSE-EERekin, besteak beste.

Lanean gertatutako beste anekdota batekin eman daiteke horren inguruko argi pixka bat. 2010eko urriaren 27an, «Zubietako hondakinen bila» izenburuko erreportajea argitaratu zuen *Berría* egunkariak. Zubietako errauste planta kudeatzeko lehiaketa publikora zer enpresa talde aurkeztu ziren eta bakoitzaren atzean zer enpresa zegoen azaltzea zen artikulua helburua. Alegia, nor zegoen eta zer-nolako interesak egon ote zitezkeen enpresa bakoitzaren atzean. Zer harreman izan dituen Garmendia jaunak FCCren gertuko enpresekin. Jakina da harreman estua duela Nicolas Redondo Terreros buruzagi sozialista ohiarekin, hain zuzen ere, gaur egun FCCko «kontseilari independentea» denarekin. Zein diren FCCrekin batera aurkeztu ziren Serbitzu SL, AE&E Innova eta Altuna y Uria enpresak. Nola Xabier Agiriano EAJko buruzagi ezaguna den Serbitzuko ordezkari nagusia... Artikuluaren tesia zen, hain zuzen ere, enpresa talde hori zela Zubietako errauste plantaren obrak eta kudeaketa aurrera eramateko faboritua. Ez zitzaiola gaitasun teknologikoa faltako horretarako, baina, batez ere, ez zituela aitapontekoak faltan izango erabakiak hartuko ziren gune politikoetan.

Handik hilabete batzuetara baieztatu zen kazetariaren tesia: FCCk, Serbitzuko eta Altuna y Uriak gidatutako taldeari eman zioten errauste plantaren proiektua egiteko eta kudeatzeko erantzukizuna. Ez zuen zalantza handirik artikulua sinatu zuen kazetariak hala gertatuko zela, egia aitortzeko. Errauste plantaren gaia gertutik jarraitu duten gehienei ere

pentsaezina egiten zitzaien bezala FCC enpresa Zubietako negozioetik urrun geratzea.

Beste enpresa talde nagusiak –Befesak, Novergiek, Thyssenkruppek, Antzibarrek eta Galdianok osatutakoak– FCCk, Serbitzuek, AEE Innovak eta Altuna y Uriak osatutako taldeari «faborezko tratua» ematea leporatu zion Diputazioari. Oraindik ez du inork azaldu nola den posible, ea kasualitate hutsa izan ote daitekeen alegia, bete-betean bat etortzea lehiaketaren oinarrietako kasuan azaltzen zen argindar energiaren ekoizpenagatik errauste plantak eskuratuko zuen diru kopurua (15 milioi euro urtean) FCC lehiaketara aurkeztutakoarekin. Zerbait jakingo zuen Befesak «faborezko tratua» leporatu zionean Aldundiari. Horrelako lehiaketek nola funtzionatzen duten, behintzat, ondo daki Andaluziako enpresa indartsuak. Ibili, behintzat, ibili da horrelako hamaika saltsatan.

Agian, 2012an gertatutako kasu batek argi pixka bat eman dezake kointzidentzia horren inguruan. Bilduk, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren gidaritza hartu eta hilabete batzuetara, Armengol Grau GHK Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa enpresako gerente ohia kargugabetu zuen. Armengol Grau ez zen ezerezetik iritsi Donostiara. Denis Itxaso eta Carlos Ormazabal bikoteak ekarri zuen. Aurretik RESA SA enpresako proiektuen burua izan zen. Hain zuzen ere, RESA SA ingeniaritza aholkularitza enpresak idatzi zuen Zubietako plantako proiektuaren baldintzen oinarriko agiria. Ondoren, ordea, enpresa horretako norbaitengandik –nondik bestela?– laguntza teknikoa eta informazioa jasoko zituen FCC bere proiektua lehiaketara aurkezteko. Agian horrek azal dezake zergatik zetozen bat FCCren taldeak aurkeztutako datu hori eta oinarriko kasuan zegoena. Eta agian horrek azal dezake ere Befesak, pas-telaren banaketatik kanpo geratu ostean, egin zuen salaketa.

Ez da hor bukatzen, ordea, Armengol Grauren eta RESA taldeak Donostiako proiektuan izan duten esku-hartzea. Baldintza susmagarrietan egindako lehiaketa batean aukeratu zuten GHK enpresa publikoko gerente izateko Itxasok eta Ormazabalek. Hori gutxi balitz bezala, soldata ederraz gain,

autoa, 1.200 euroko etxe baten alokairua eta gainerako gastuak ordaindu zizkioten Armengol Grauri, Bilduren taldeak 2012ko maiatzean kargugabetu zuen arte.

Lehengora itzuliz, *Berrian* argitaratutako «Zubietako hondakinen bila» artikulua zela eta, EAJko buruzagi batzuk egunkariaren erredakziora joan ziren kazetariari kontu hartzera. Formetan zuzen aritu ziren, kazetaria ez zuten askorik estutu. Baina bisita bera esanguratsua delakoan ekarri dugu gogora pasadizoa. Alegia, bisita jaso ostean kazetariari honako sentsazio hau berretsi eta indartu zitzaiolako: enpresen eta alderdien arteko harreman horiek, interes ekonomiko ezkutua, kazetariok susmatu bai baina gehienetan frogatu ezin ditugun kontuak direla. *Vox populi* izan arren, tabu dira, aipaezin... Alegia, bete-betea mamia ukitzen ari zelako ustea indartuta irten zen bileratik. Eta are eta garbiago ikusi zuen hilabete pare bat geroago, Zubietako errauste plantaren proiektua FCC, Serbitzu, AE&E Innova eta Altuna y Uria enpresei eman zietela jakin zuenean; alegia, espero zitekeena gertatu zela. Bitxia ere bada, baina *Berriara* bisitan etorri ziren EAJko kideetako batek hilabete gutxi batzuetan –eta azpimarratuta gera bedi hilabete gutxi batzuetan izan zela– egin zuen lan aukeratuen taldeko enpresetako batean.

Era batera edo bestera, zirkulu bat itxi zen enpresa taldea hautatu zuen erabaki horrekin, nolabait esateko. Garmendia eta Ansorena jaunek hiri hondakinen plan nagusia idatzi zutenetik lehiaketako enpresa irabazleen izena jakin zen arteko ibilbidean, bi hari muturrak lotu zitzaizkion azkenik elkarri: enpresa munduarena eta erakunde publiko zein alderdi politikoena.

1.4. Vocento eta FCC

Errauste plantaren historia jarraitu duenak badaki Vocento taldeko Bizkaiko eta Gipuzkoako egunkari nagusiek zeinen sutsu babestu izan dituzten errauste plantak, nahiz eta jakin,

askotan, herritarren artean –eta euren irakurleen artean ere– jarrera horrek ez zuela harrera onik edukiko. Hondakinak hala kudeatzearen aldekoak izango dira ideologiaz. Baina ez da guztiz burugabea pentsatzea bi egunkariak interesak ere izan ditzaketela proiektu horietan. Esate baterako, FCCko akziodun nagusietako bat Banco de Santander da. Hain zuzen ere Emilio Botinen bankuak izendatua da FCCko administrazio kontseiluko gaur egungo lehendakaria, Baldomero Falcones bankari ezaguna. FCCko akziodun nagusietakoa izateaz gain, Santanderrek ordezkari bat zuzena dauka *El Correo* eta *El Diario Vasco* barne hartzen dituen Vocento taldean ere. Hain zuzen ere, Rodrigo Echeniquek ordezkari du Santander Vocentoren administrazio kontseiluan. Beraz, Santander da Vocento eta FCC elkartzen dituen lokarria. Lokarri esanguratsua, inondik ere. Beraz, lotura horretatik ulergaitza litzateke Gipuzkoan gehien irakurtzen den egunkaria errauste plantaren proiektuaren aurka aritzea, jakinda proiektu horren onuradun handienetakoa FCC izango dela; alegia, Santander bankua; alegia, Vocento komunikazio enpresaren akziodun nagusietakoa.

Jakina da Vocenton BBVA dela adar sendoenetakoa, eta banku horrek Correo Taldearekin izandako harreman historikoa aski ezaguna da. Vocento taldeko administrazio kontseiluko beste kide bat Alvaro Ibarra Zubiria da, Sener ingeniari enpresako zuzendaritzako kidea. Eta jakina da Senerrek kudeatzen duela Zabalgarbi Bizkaiko errauste planta, FCCrekin batera.

Beharbada horrek azaltzen ditu kointzidentzia informatibo asko. Zenbat elkarrizketa egin dituzten errauste plantaren aldeko agintariek. Zenbat datu, beti une informatibo ezin egokiagoetan. Zenbat informazio errauste plantaren bide korapilatsua leuntze aldera. Esate baterako, Hernanin atez ateko bilketa sistema martxan jarri bezperan, 2010eko maiatzean, Carlos Ormazabal GHEko lehendakariarekin egindako elkarrizketa ipa daiteke, adibide moduan. Edota aurrerago

gertatutako beste gorabehera batzuk. Adibidez, Gipuzkoako Diputazioa eta EAJ 2012ko aurrekontu proiektua negoziatzen ari zirenean, hamaika aldiz deitu zion *El Diario Vasco*ko kazetari batek diputazioko negoziazio hartako arduradunari galdetuz ea baieztatzen zuen akordioak ahalbidetuko zuela errauste planta txikiago bat egitea Zubietan. Ezezkoa erantzun zion arduradun politikoak. Baina hitzarmena egin eta biharamunean, 2011ko abenduaren 13an, izenburu nagusia eman zion *El Diario Vasco*k gaiari: «Bilduk eta EAJk atea ireki diote Zubietan errauste planta txikiago bat egiteari».

Hain zuzen ere, bilera pribatu batean, errauste planta txikiago bat egiteko planteamendu hori gizarteratzen eta sozializatzen lagunduko zietela hitzeman zieten *El Diario Vasco*ko arduradunek diputazioko ordezkari. Hain zuzen ere, metafora hau erabili zuten: hegazkinaren norabidea aldatzea erabakitzen bazuten, egunkariak «lurreratze pista» prestatuko ziola Diputazioari. Hau da, ezker abertzaleko sektoreetan eta errauste plantaren aurkako mugimenduan norabide aldaketa horrek sor zezakeen nora eza eta *shock* mediatikoaren aurkako botika informatiboa emango zietela.

Baina, honaino iritsita, gauzak argitzea komeni da. Inork ez dezala pentsa errauste plantaren atzean interes ekonomiko partidista-pribatu hutsak besterik ez daudela. Bereziki, eta funtsean, eredu baten aldeko apustua dago hondakinak kudeatzeko modu horren atzean. Ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkundearen logikari eta naturaren baliabide mugatuen erabilera burugabeari jarraitzen dion sistema kapitalistaren aldeko apustua dago errauste planten oinarrian, bereizi gabeko hondakinen zabortegetian bezalaxe. Kontsumoa handitzeak hondakinak gehitzea dakar, eta haiek errausteak energiaren kontsumoa handitzea. Murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea eta konpostatzea kontrako norabidean doaz. Naturaren ziklo zirkularrari erantzuten diote, ez sistema kapitalista kontsumistaren ziklo lerro bakarrekoari.

Azken finean, birziklatzean eta berrerabiltzean oinarritutako eredia deshazkundearen logikari egokitzen zaio, eta kontra egiten dio egungo ekoizpen industrial hazkunderazaleari. Gipuzkoan egon den –eta dagoen– hondakinen inguruko borroka politiko-ideologikoa horrexegatik bilakatu da lehen mailako, sistemaren erraiak kolokan jartzea planteatzera ausartu delako. Eta ez hainbeste enpresa eta politikari batzuek interes pertsonal handiagoak edo txikiagoak dituztelako negozio jakin batean. Nahiz eta horretatik ere egon badagoen.